

UPV/EHUko BIZKAIKO CAMPUSEKO "UNIKOAK" FILM LABURREN LEHIAKETAKO II. EDIZIOAREN DEIALDIA

- 2023 -

1. DEIALDIAREN HELBURUA ETA APLIKAZIO EREMUA

UPV/EHUko Estatutuen **1.Artikulu**n zehazten denez, "[Unibertsitateak] euskal gizartearen premiei erantzungo die, bai eta historiak eta aldaketa sozioekonomiko, politiko eta kulturelek ekarritakoei ere. Kultura eta zientzia unibertsalaren jakintza ere zabalduko du gizartean, eta euskara eta euskal kultura bultzatuko ditu bereziki". Bestalde, **4d Artikulu**n zehazten da UPV/EHUren helburuetako bat dela "[bere eskumenen eremuan] Euskararen garapena eta normalizazioa indartzea". Hitz horiek oinarri hartuta, Bizkaiko Campuseko graduetakoko ikasleek euskararekin duten engaiamendua erakusteko aukera gisa **UNIKOAK Film Laburren II. Lehiaketa** antolatu da.

- 1.1. **Helburua:** Euskararen eta euskal kulturaren aldeko lanak bultzatzea.
- 1.2. **Norentzat:** UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko edozein graduetakoko ikasleei zuzendua.

2. ESKAERAK FORMALIZATZEA, ENTREGATZEA ETA EPEAK

Deialdi hau UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko ikasleek parte hartzeko bideratua da. Lanak bakarka zein taldeka egin eta aurkeztu ahal izango dira.

- 2.1. **Egile guztiak Bizkaiko Campuseko ikasleak** izango dira, eta **graduren batean matrikulatuta** egon beharko dira 2022/2023 ikasturtean.
- 2.2. **Lanen iraupena:** Aurkeztutako lanek gehienez 15 minutuko iraupena izango dute.
- 2.3. Film laburrak **originalak** eta **argitaratu gabeak** izango dira.
- 2.4. **Aurkezteko epea:** urtarrilaren 20tik irailaren 20ra, biak barne.
- 2.5. **Lanak aurkezteko tokia:** lanak aurkezteko, deialdi honi erantsitako **eskabide orria bete** behar da. Eskaerak Erregistro Orokorren edozein bulegotan aurkeztuko dira, eta Bizkaiko Campuseko Euskararen eta Kulturaren Arloko Zuzendaritzari zuzenduta:

UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko Errektoreordetza
Euskararen eta Kulturaren Arloko Zuzendaritza (EHUKultura Bizkaia)
Bizkaia Aretoa- UPV/EHU
Abandoibarra Etorbidea, 3
48009 Bilbao

Lanak Vimeoan edo Youtuben kargatuko dira, iraungitze-datarik gabeko deskarga baimenarekin. Ondoren, bideora sartzeko esteka helbide honetara bidaliko da:

ehukultura-bizkaia.info@ehu.eus

- 2.6. **Sariaren banaketa:** Euskararen Asteko ospakizunekin.
- 2.7. **Sariak:** **bi sari** banatuko dira. Lehenak **600 euro** izango ditu eta bigarrenak **400 euro**. Sariak dagozkien atxikipenak izango dituzte. Halaber, egokitzen jotzen

diren aipamen berezi guztiak emango dira.

UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko Euskara eta Kultura Zuzendaritzak lehiaketan parte hartzen duten film labur guztiak edo batzuk proiektatzeko eskubidea izango du.

3. PROZEDURA, EPAIMAHAIKIAK ETA EBAZPENAK

3.1. Epaimahaia: Bizkaiko Campuseko Euskara eta Kulturaren arloko Zuzendaritzak izendatuko ditu hiru pertsona:

- Ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalen bat,
- Ikus-entzunezko Komunikazioa Graduaren edota Arte Ederretako Graduaren IIP bat
- Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak proposatutako pertsona bat, ezaguna euskal kulturaren eremuan.

Epaimahaiaren erabakiaren aurka ezin izango da errekurtsorik aurkeztu. Epaimahaiakiderenbategi aurkeztutako hautagai-zerrendekin harremana badu, ezin izango du balorazioan parte hartu.

3.2. Lehiaketaren irabazleak aukeratzeko. Irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Lanaren originaltasuna
- Alderdi tekniko zaindua izatea
- Deialdiaren helburuetara egokitzea
- Euskararen edo euskal kulturaren aldeko mezua erakustea

3.3. Aurkeztutako lan guztiek behar bezala kudeatuta izan beharko dituzte film laburrean agertzen den ikus-entzunezko edozein baliabide erabiltzeagatik egile-eskubideak/jabetza intelektuala. UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko Euskara eta Kulturaren arloko Zuzendaritzak ez du bere gain hartuko hirugarren batzuk aipatuta aurkeztu diren lanen edukiaren ondoriozko erreklamazioen erantzukizunik.

3.4. Epaimahaiaren ahalmenak. Epaimahaiak, hautaketako edozein momentutan, lehiaketatik kanpo utz dezake lan bat hauetariko arrazoiren batengatik:

- Egilea nor den zalantza dagoenean.
- Pertsonen eta kulturen duintasunaren aurka jotzen duelako.
- Beste obra batzuen plagiotzat hartzen duenean eta, plagiotzat jo ez arren beste obra batzuetan inspiratutakoa izanik eta haiekin dituen berdintasunez epaimahaia jabeturik, originaltasunik ez duela erabakitzen duenean.

3.5. Lehiaketan parte hartzeak baldintza guzti-guztiak onartu direla esan nahi du.

Bilbo, 2023ko urtarrilaren 16an

Gorka Moreno Márquez
Bizkaiko Campuseko Errektoreordea